



OLENTZERO ETA JAIOTZEN LEHIAKETA 2022

Plaza Zaharrea, abenduaren 24ean, 12:00etan

ARAUTEGIA

- A – 10 urte arteko haurrak
- B – 11 urtetik 15 urtetarainoko haurrak
- C – 16 urtetik goitikoak

Olentzeroak eta Jaiotzak 11:30etarako egon beharko dira plazan. Euria eginez gero, plazako parte-hartzaileak udal-arkupetan kantatuko dute.

Lehiaketan aurkeztuko diren taldeak guttienez 6 pertsonen osatuak izanen dira eta partaide guztiek ohiturazko janzkera soinean eramanen dute.

Taldeak batek hurrengo kategoriko adina baldin badu, automatikoki hurrengoan lehiatuko da.

Olentzero talde bakoitzak 2 kanta kantatuko ditu: bata, nahitaez **“OLENTZERO BURU HAUNDIA”** izanik eta bigarrena talde bakoitzak aukeraturikoa.

Derrigorrez Olentzeroa bizkar gainean izanik kantatu beharko da.

Epaimahaia, herriko bederatzita pertsonen osatua egonen da. Olentzeroa edo Jaiotza, kanta eta janzkera baloratuko dituzte. Epaimahaia kioskoan egonen da eta honen espazioa errespetatu beharko da beraien eginbeharra oztopatu gabe. Epaimahaiak, kantua baloratuko du (10 puntu gehienez), Olentzeroa-Jaiotza (10 puntu gehienez) eta janzkera (8 puntu gehienez). Partahartzaileen janzkera baloratzerakoan, ondokoak hartuko dira kontutan; baserritarren arropa janztea, tokilla edo bizkalarruarekin, buruan zapia edo zapelarekin eta abarka eta zapinak eramatea.

Lehiaketaren ondotik, bertan parte hartu nahi ez dutenentzat, jaialdiko atala izanen da. Atal honetan taldeek kantatu eta beraien Olentzeroa edo Jaiotza erakusteko aukera izanen dute, betiere lehiatu gabe. Atal honetan parte hartu nahi duenak, goizean, lehiaketa hasi aitzin, antolakuntzari jakinaraztea eskertuko da.

Ilunabarreko 18:00etan C kategorian irabazi duen Olentzeroak kalejira egingen du herriko karriketan barna Lesakako Musika Bandak lagundurik.

Lehiaketa 12:00etan ospatuko da plazan. Parte-hartzaile guztiek akitu ondotik, irabazleen zerrenda jakinaraziko da eta sariak banatuko dira.

Lehiaketeran ondoren Olentzero eta Jaiotza guztiak, kaleetatik jaso beharko dira.

Bertalde, Olentzeroak xehetuz gero biltzeak suposatzen duen kostua Olentzero talde horrek ordaindu beharko du.

Lehiaketan parte hartzeko alde aitzinetik izena eman beharko da:

- Abenduaren 20, 21 eta 22 (09:00-14:00 Harriondoa Kultur Etxeko Kultura Bulegoan eta 14:00-20:00 Liburutegian).
- Abendauren 23an 09:00-13:00 Harriondoa Kultur Etxeko Kultura Bulegoan.





SARIAK

OLENTZERO

A-10 URTE ARTE

Lehena	100 €
2.a	90 €
3.a	80 €
4.a	70 €
5.a	60 €
6.etik aitzinera	50 €

B-11TIK 15 URTETARA

Lehena	120 €
2.a	110 €
3.a	100 €
4.a	90 €
5.etik aitzinera	80 €

C-16 URTETIK GOITI

Lehena	600 €
2.a	400 €
3.a	300 €
4.a	200 €
5.atik aitzinera	150 €

JAIOTZAK

10 URTE ARTE

Lehena	80 €
2.a	70 €
3.a	60 €
4.a	50 €
5.a	40 €
6.etik aitzinera	30 €

11 URTETIK GOITI

Lehena	100 €
2.a	90 €
3.a	80 €
4.a	70 €
5.a	60 €
6.etik aitzinera	50 €

Lesakan, 2022ko abenduaren 14an

